

Esker onez bizi

12. saioa

Zein garrantzitsua den daukaguna baloratzea! Zenbat aldiz ez gara esker oneko agertu besteekin? Zenbat aldiz damutu gara eskerrak ez emateaz? Gaurko saioan, Jainkoak gure inguruko pertsonen bitartez gure alde egiten dituen gauza miragarriak antzeman eta eskertu egingo ditugu.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Jainkoak gure inguruko pertsonen bitartez gure alde egiten dituen gauza miragarriak antzeman
- Eskerrak eman bizikide ditugun pertsonengatik
- Jainkoari eskerrak eman gure alde egiten duen guztiagatik

Haurrak:

- Jainkoak gure inguruko pertsonen bitartez gure alde egiten dituen gauza miragarriak antzeman
- Eskerrak eman bizikide ditugun pertsonengatik
- Jainko gure Aitari eskerrak ematen ikasi

GARAPENA

Geure burua aurkeztu eta nola gatozen azaldu ondoren, saio honetan, haur nahiz heldu, batera arituko garela esango du eragileak.

Hasteko, kontzentratzen eta giro egokia sortzen lagunduko digun ariketa egingo dugu. Eragileak, honela hitz egingo du: Lurrean eseri eta erlaxatu egingo gara. Hankak gurutzaturik eta bizkarra zuzen, sorbaldak altxatuko ditugu, eta jausten utzi, lepoa eta zerbikalak erlaxatzeko. Begiak itxi eta arnasketak egingo ditugu. Lehenengo, arnasa normal hartuko dugu; arnasa hartzean, arreta jarriko dugu gure gorputzean, zer gertatzen zaion antzeman... Ondoren, sakon hartuko dugu arnasa, airea barru-barruraino, sabelalderaino sartu arte, airea 4 segundoz atxikiz eta gero, apurka-apurka, arnasa botaz (arnasbehera arnasgora baino luzeagoa).

Isilik geratuko gara 10 segundoz.

Ondoren, isiltasunari eutsiz, begiak ireki eta Lukasen kontaketa entzun dezatela: "Lepradunen sendaketa" (Lk 17, 11-19).

"Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barrena zihoan Jesus. Herri batean sartzerakoan, hamar legendun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: 'Jesus, Maisu, erruki zakizkigu'". Jesusek, ikustean, esan zien: 'Joan eta azaldu apaizengana'. Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez; samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: 'Ez ote dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederatzia? Ez al da atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?' Gero, esan zion: 'Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu'".

Elkarrizketan jardunez, Ebanjelioko txatal hau ondo ulertu dugun ikusiko dugu (Zer gertatu da? Zeintzuk dira pasartean agertzen direnak? Zer egin du agerraldiko pertsonaia bakoitzak?). Begiak itxi ditzatela une batez eta pentsa dezatela zein izatea nahiko luketen: eskerrik eman gabe joan zirenetakoa ala eskerrak ematera itzuli zena (ez luzatu, baina nahi duten guztiek azal dezatela beren hautua). Eta guk, ematen dizkiogu eskerrak besteei? Eta Jainkoari, ematen diogu eskerrik, Berarengandik jasotzen dugun guztiagatik? (hitz egiteko aukera eman).

Ondoren, hurrengo jokoa egingo dute elkarrekin nagusi eta txikiek:

Zirkuluan eseri daitezela, hankak gurutzatuta (zirkulu itxia izan dadila, elkarren ondo-ondoan eseriz). Jokoa, batak besteari pilota botatzean datza, esate baterako: taldekide baten izena esango dut, Jainkoari berarengan ikusten dudana gauza on bategatik eskerrak emango dizkiot eta pilota jaurtiko diot esanez: *"!..., gaur, eskerrak ematen dizkiot Jainkoari zure alaitasunagatik!"*. Pilota jasotzen duenak, gauza bera egingo du beste taldekide batekin (denek bota eta jaurtiko dute pilota, hau da, taldekide guztien gauza onen bat aipatu behar da).

Amaitu ondoren, bizi izandakoa komentatuko dugu:

- Nola sentitzen gara eskerrak ematen dizkigutenean?
- Nola sentitzen gara norbaiti eskerrak ematen dizkiogunean?

Ondoren, mural bat egingo dugu elkarrekin. Ondorengo izenburua jarriko diogu: *"Kanta Jaunari kantu berria, egintza harrigarriak egin baititu"* (Sal 98, 1), Jainkoak egunero oparitzen digun guztia islatu eta eskertuz. Honela egingo dugu: lehenik eta behin, familia bakoitzak muralaren zati bat egingo du, Jainkoak guretzat eta guregatik egin dituen gauza harrigarriak islatuz. Bakoitzak bere zatia amaitzen duenean, denak elkartuko dira mural handian. Orduan, eragileak Jainkoak egin digun oparirik handiena gogoratuko du: bere Semea. Hori adierazteko, Jesusen irudia ipiniko dugu muralaren erdian. Murala egiten dugun bitartean, "Gracias, Dios" abestia entzungo dugu:

www.youtube.com/watch?v=V3YJEi4tCfM

Saioari amaiera emateko, murala aurrean dugula, bertan agertzen den guztian jarriko dugu arreta eta eskerrak emango dizkiogu Jainkoari guztiagatik. Gure Aita errezatuko dugu eta 'eskerrik asko, Jauna!' edo lehengo abestia kantatuko.